



Busturiko
Udala



Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
DATA / FECHA: 2019/01/23
HASIERA / INICIO: 20:40
AMAIERA / FINAL: 20:45

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA / ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
V́ctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa lehen deialdian egiteko. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatutako gai-zerrendaren arabera, eta akordio-proposamen hauek egin ziren:

1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2019ko urtarrilaren 9ko saioko akta onartzea.

2.- Horma-irudia Larrazabaleko Eskolan.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen A. jaunak, Udalak onartutako testua jasota, horma-irudia aldatzeko egindako eskaintza onartzea, bai eta otsailaren amaierara arteko epea ematea ere lanak egiteko.

3.- 2019ko ordainsari-igoerak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Eudelek, Euskadiko Udalen Elkarteak, 2019ko ordainsari-igoerei buruz emandako aholkua Busturiko Udalean baliatzea, bai eta 24/2018 Errege Lege Dekretua ere, zeinak hau xedatzen duen: "1. Aipatutako 3. Bi artikuluko lehenengo paragrafoaren inguruan, 2019/01/01etik aurrerako eraginarekin, langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora igotzea, hau da, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarieko % 2,25.

2. Aipatutako 3. Bi artikuluko bigarren multzoari dagokionez, une honetan ez da ezagutzen sortutako soldata-masaren igoeraren ehuneko zehatza. Hori dela eta, Ministro Kontseiluak dagokion zehaztapena eta onespena emateko zain egon behar da, betiere, une honetan egokiak diren aurrekontu esleipenak hornitu ahal izateari kalterik eragin gabe. 3. Bi artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, igoera hori, dagokionean, 2019/07/01etik aurrera gehituko litzateke.

3. Aipatutako 3. Bi artikulua azken paragrafoarekin lotuta, eta udal-autonomiari kalterik eragin gabe, 2018ko ekitaldian* aurrekontu-superabit egoera izan duten Euskadiko udalei gomendatzen diegu, euren finantza eta aurrekontu aukeren neurrian, soldata-masaren 0,3ko igoera gehigarria baimentzeko. Aipaturiko munta 3. artikulua Bi, azken paragrafoan, edo aplikatzekoa den beste edozeinetan jasotako lege-formulen bitartez banatuko da, hau guztia beti negoziazio kolektiboaren eta udal-autonomiaren barruan. 2018ko ekitaldian aurrekontu-superabit egoerarik bizi izan ez duten udaletarako, EUDEL-en gomendioa da igoera hori soldata masaren % 0,25ekoa izatea".

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 9 de enero de 2019.

2.º.- Mural en la Escuela de Larrazabale.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la propuesta del Sr. A. para modificar el mural con el texto aprobado por el Ayuntamiento, dándole un plazo para ejecutarlo hasta finales de febrero.

3.º.- Incrementos retributivos 2019.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aplicar en el Ayuntamiento de Busturia la recomendación formulada por la Asociación de Municipios Vascos, Eudel, sobre los incrementos retributivos de 2019, y la aplicación del Real Decreto Ley 24/2018 y que establece:

"1. En relación con el párrafo primero del referido art. 3 Dos, incrementar, con efectos a 01/01/2019 las retribuciones del personal el máximo legal permitido, esto es, un 2,25% respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2018.

2. En relación con el segundo bloque del referido art. 3. Dos, a fecha de hoy se desconoce el concreto porcentaje de incremento de masa salarial resultante y en tal sentido se estará a la concreción y aprobación correspondiente por el Consejo de Ministros, todo ello sin perjuicio de que se puedan ir dotando, en el momento actual, las consignaciones presupuestarias oportunas. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 3. Dos, dicho incremento, en su caso, se añadiría con efectos a 01/07/2019.

3. En relación con el último párrafo del referido art. 3. Dos, y sin perjuicio de la autonomía municipal, recomendamos a los Ayuntamientos vascos con situación de superávit presupuestario en el ejercicio 2018* a que, en la medida de sus posibilidades financieras y presupuestarias, procedan a autorizar un incremento adicional del 0,3 de la masa salarial. Dicha cuantía, se distribuirá mediante las fórmulas legales que se refieren en el art. 3. Dos, último párrafo, o cualesquiera otras que resultaran de aplicación, todo ello en el marco de la autonomía municipal y negociación colectiva. En aquellos Ayuntamientos que no hubieran tenido la situación de superávit presupuestario en el ejercicio



2018, la recomendación de EUDEL sería que tal incremento fuera del 0,25% de la masa salarial”.

4.- Euskara-arloko jarduerak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen euskara-arloko 2019rako jarduera-programa onartzea.

4.º.- Actividades del área de euskera.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el programa de actividades del área de euskera para el año 2019.

5.- Euskara-zerbitzuan laguntzeko aholkularitza-kontratua.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen Ahize-aeke enpresarekin aholkularitza-kontratua sinatzea, Udaleko euskara-zerbitzu teknikoan lagun dezan. Aipatu kontratuaren zenbatekoa 14.500,00 €-koa da (BEZa gabe), eta, horren arabera, enpresak euskararen gaineko zerbitzu teknikoak eskainiko du.

Kontratuak 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra arte iraungo du, eta xede di Udalari Euskararen Normalizazio eta Erabilera Planaren gaineko aholkua ematea.

5.º.- Contrato de asistencia para el servicio de euskera.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el contrato de asistencia para el servicio técnico de euskera con la empresa Ahize-aeke, por un importe de 14.500,00 € (sin IVA).

El contrato tiene una vigencia de 1 de enero a 31 de diciembre de 2019, y tiene como objeto la asesoría al Ayuntamiento en la realización del Plan de Normalización y Uso del Euskera.

6.- Bide publikoan jasotako txakurren arazoa.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion kalean jasotako bi txakurren mantenua oso garestia izaten ari dela. Txakurrak arriskutsutzat jo ohi diren arrazetakoak dira, eta animaliak hartzeko zentro batean daude (gutxi gorabehera, hilean 450 € balio du bi txakur horien mantenuak).

Arazoa konpontze aldera, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen informazio-kanpaina bat egitea animaliak hartuko dituzten pertsonak topatzen saiatzeko.

6.º.- Problemática de perros recogidos en la vía pública.-

La Junta de Gobierno Local fue informada del alto costo que está suponiendo el mantenimiento en un centro de recogida de animales de dos perros recogidos en las vías públicas y pertenecientes a razas consideradas como potencialmente peligrosas (mensualmente el costo del mantenimiento de estos dos perros asciende a 450 € aproximadamente).

Con la finalidad de tratar de solventar este problema, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó realizar una campaña informativa para tratar de encontrar personas que adopten estos animales.

7.- C. H. P.k eginiko salaketaren gaineko espedientea.-

E. O. F.k aurkeztutako idazkia ikusirik, bere txakur batek C. H. P.ri eragindako arazoaren ondorioz hark jarritako salaketari buruzkoa, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen espedientea bukatutzat jotzea.

7.º.- Expediente por denuncia de C. H. P.-

Visto el escrito presentado por E. O. F., en relación a la denuncia presentada por C. H. P., sobre las molestias ocasionadas por un perro de su propiedad, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó archivar el expediente.

8.- M. J. H. M.aren eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen M. J. H. M.k aurkezturiko eskaera ez onartzea, alegia, ez ematea baimena emakumeari Busturiko Udalak Bermeoko Udaleko Kirol Patronatuarekin udalerriri horretako kiroldegiaren erabilerrari buruz sinatutako hitzarmenaren onurez gozatzeko. Izan ere, Busturiko Udala berarenak diren instalazioez ari zen Munitizko enklabea auzotarrei jakinarazi zienean hilerriarekin, medikuarekin, egoitzarekin, kiroldegiarekin eta abarrekin lotutako eskubideei eutsiko zietela. H. andrea, egun, Sukarrietan erroldatuta dago, eta, Busturiko Udalak bezalaxe, hango Udalak hitzarmen-mota

8.º.- Solicitud de M. J. H. M.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó rechazar la solicitud presentada por M. J. H. M., para beneficiarse del convenio suscrito entre el Ayuntamiento de Busturia y el Patronato Municipal de Deportes de Bermeo, sobre la utilización del polideportivo de esta última localidad, dado que, cuando el Ayuntamiento de Busturia informó a los vecinos del enclave de Munitiz respecto de que mantendrían sus derechos en lo relativo a cementerio, médico, residencia, polideportivo etc., se estaba refiriendo a las instalaciones deportivas propias del Ayuntamiento de Busturia, y que, tal y como esta corporación tiene suscrito ese



bera egin dezake.

convenio, lo mismo puede hacer el Ayuntamiento de Sukarrieta, en el que ahora está empadronada la Sra. H.

9.- P. H. M.en idazkia UrdaiRaid-i buruz.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen P. H. M.i baimena ematea 2019ko urriaren 5ean Ekoetxea UrdaiRaid proba antolatzeko. Halaber, urriaren 4an (zapatua), arratsaldez, eta 5ean (domeka), Altamirako tenis-pistak, komunak eta aldagelak baliatu ahal izango ditu, hala-nola Axpeko mahaiak eta aulkiak herri-bazkaria egiteko, eta hango futbol-zelaiko dutxak ere bai.

9.º.- Escrito de P. H. M. sobre Urdairaid.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar a P. H. M., la organización de la prueba Ekoetxea UrdaiRaid 2019 el día 5 de octubre, así como la utilización de las pistas de tenis el sábado día 4 por la tarde, el domingo día 5, los baños y vestuarios de Altamira, mesas y sillas para una comida popular, y las duchas del campo de fútbol de Axpe.

10.- Egurra ateratzeko landa-bideak erabiltzeko baimena.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Duñabeitia Forestal S.L. enpresari baimena ematea Busturia menditik egurra ateratzeko J. L. M. G.ren landa-bideak erabiltzeko (1/19 espediente), guztira 186 euroan, eta Landaverde pista erabilita. Orobat, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aipatu enpresari ohartaraztea udal-ordenantzan jasota dagoela aurretik udal-baimena izan gabe egurra ateratzeko egiten diren jarduketek begirako zehapen-araubide bat.

10.º.- Licencia de utilización de caminos rurales para la saca de madera.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a Duñabeitia Forestal, S.L. (Expte. 1/19), del monte "Busturia", propiedad de J. L. M. G., por un total de 186 estéreos, utilizando la pista de Landaverde.

Asimismo, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó informar a la citada empresa, que la ordenanza municipal contempla un régimen sancionador para las sacas que se producen sin obtener la previa licencia municipal.

11.- Biztanleen erroldatik baja ematea.-

Toki Erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta kontuan hartuta Erroldatze Kontseiluaren Probintzia Atalarenaldeko txostena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen M. R. R. F.ri ofiziozko baja ematea Biztanleen Udal Erroldatik, arauz kanpo erroldatuta dagoelako.

11.º.- Baja del Padrón de habitantes.-

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 72 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, y visto el informe favorable emitido por la Sección Provincial del Consejo de Empadronamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dar de baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes, por inscripción indebida, a M. R. R. F.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, akta hau idatzi da, Alkate jaunak eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dudanak, sinatu duguna.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea / El Alcalde,

Idazkaria / El Secretario,

Izp. / Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez